

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektua sortzeko ideien zerrenda egiterakoan, gure egunerokotasunean erabilera emango diogun proiektua izan behar zela kontuan hartu genuen. Gure ideia App bat sortzea da non arropa jantzi edo probatu gabe nola geratuko zaizun ikusi daitezkeen. Kontutan hartuta pertsona bakoitzaren altuera, zabalera eta lodiera datuak sartu behar direla, gutxi gorabehera. Modu honetan, askoz errazagoa egingo zaigu egunero zer jarri erabakitzea eta denbora asko aurreztuko dugu. Arropa armairutik ateratzerakoan, logela guztia desordenatzen dugu eta aplikazio hau erabiltzen badugu, ez dugu logela ordenatu beharrik.

App-an zure armairuan dagoen arroparen argazkia igo behar da eta denda fisikoetan berriz, dendan saltzen duten arroparen argazkiak, gainera, denda fisikoetan, proiektore bat egongo da App-an ikusten dena paretan proiektatzeko.

Dendetan gertatu daitezkeen eragozpenak saihestu daitezke, adibidez: makillaje zikinduta egotea edo puskatuta egotea. Gainera, Covid-19a dela eta oso lagungarria izan daiteke denbora eta lana aurrezteko kontaktu fisikoa saihestu eta egin beharreko

desinfektazio prozesuak saihesteko eta aukera ona iruditu zaigu ingurunea zaintzeko eta kutsadura murrizteko.

